



Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataforma eratu du herritar talde batek; ekintzak egiten hasi dira / 8-9

TXINTXARRI

Lasarte-Oria zipriztinduko dute

Bizipozaren herriko taldeak eta ikastetxeek azken hilabeteetan landu dutena erakutsiko dute, jai bat eginda / 4

Sanpedroetako lehen iragarpena egin du Lasarte-Oriako Udalak, musika talde nagusia / 2

Alex Garcia herrikidea Tailandiatik bueltan ekartzeko tramiteak hasi dituzte / 3

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak baino lehenagoko ekintzak egin dituzte herrian / 5

Gurasoen bizipenetatik abiatutako bi lan, Euskal Dokumentalen Zikloan / 8

LOKEko judoek sei domina jantzi dituzte kadete eta infantil mailako Euskadiko txapelketan / 10

BTTaren 350 bat zaletuk mendiaz eta kirolaz gozatu dute Lasarte-Oriako lasterketan / 11

ERAIKUNTZAN LAN ASKO DAGO!!
Enkargatuak, Margolariak, Igeltseroak, Pladuristak...

ATE IREKIAK
Apirilak 23
17:00etan

Eman izena
www.eagi.eus

EAGI
GIPUZKOAKO ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN GIPUZKOA

Goi maila eta erdi mailako zikloak
ERAIKUNTZA

Donostia Etorbidea 5
20160 Lasarte Oria
943-56 92 22
INFO + www.eagi.eus

Fp
LANDE HEZIRETA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Musika taldeak jakinda, afixa aukeratu behar

Lasarte-Oriako Udalak aurtengo festetan oholza gainean arituko diren musika talde nagusien berri eman du. Horiek jakinaraztearekin batera, sanpedroak iragarriko dituen afixa gustukoena aukeratzeko epea ere zabaldu berri du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak sanpedroak herritarrekin diseinatu asmoz, horiek osatuko dituzten musika taldeak eta bestelako kale animazioak proposatzeko aukera eman zien herritarrei parte hartze prozesu baten bitartez. Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonsok azaldu du, orotara 137 iradokizun jaso dituztela; horietatik 101 sarean eginak izan dira, eta gainerako 36ak, berriz, etxe etxe banatutako eskuorrien bitartez jaso dituzte. Zifra horiek kontuan hartuta, eskerrak eman dizkie Alonsok parte hartzaile guztiei euren proposamenak egiteagatik.

Iradokizunak egiteko epea amaituta, eta "horiek guztiak ikusi eta baloratu ostean", gaur iragarri ditu jaietan oholza gainean arituko diren musika talde nagusiak zeintzuk izango diren (gris koloreko eskuneiko taulan dituzue, egunez egun, horiek). Eskaintza hori, ordea, are zabalagoa egingo dute Isla plazan aurrera eramango dituzten dantzaldiek. Horiek ezin izan ditu iragarri, kontratazioetan murgilduta baitaude oraindik. Jaizkibel plazako emanaldietarako herriko taldeak kontratatu nahi dituztela ere nabarmendu du.

Iragarri dituzten kontzertu horietara zenbat diru bideratu duten zehatz argitu ez duen arren, aipatu du festak aurrera eramateko aurrekontu totalaren "erdia baino gehiago" bideratu dutela.

Afixa iragarlea

Herriko jaiak iragarriko dituen egitaraua ilustratuko duen afixa gustukoena aukera dezakete lasarteoriatarrek dagoeneko Agustin Valdivia alkateak eta Alonsok. Azaldu dute aurtengo hemezortzi lan jaso dituztela, baina, horietatik hamahiruk parte hartuko dutela, orain, irabazlea izate-



Star Ways musika taldeak iaz ere jo zuen Okendo plazan. TXINTXARRI

Musika emanaldiak, egunez egun

Ostirala, ekainak 28

- Isla plaza: Ibai Berriak, 20:00etan.
- Okendo plaza: ETS, 23:30ean
- Jaizkibel plaza: I Love 80 Band, 00:00etan

Larunbata, ekainak 29

- Okendo plaza:
- Bulego, 00:00etan
- Star Ways, 02:00etan
- Jaizkibel plaza: Carlos Jean DJa, 00:00etan.

Igandea, ekainak 30

- Okendo plaza:
- Maruja Limon, 20:00etan
- Alargun Beltzak, 22:30ean

Astelehena, uztailak 1

- Okendo plaza: Belako, 23:00etan

Asteartea, uztailak 2

- Okendo plaza: Oxabi, 23:00etan

ko lehian; izan ere, udal ordezkariak azaldu dutenez gainerako bost afixak bazter utzi behar izan dituzte, oinarrietan zehaztutako berdintasunari dagozkion parametroak errespetatzen ez zituelako. Gauzak horrela, lasarteoriatarrek aukera dute, datozen asteetan, Hamahiru horien artean gustukoena hautatzeko. Kartelak udalaren webgunean ikusgai daude honezkero, eta maiatzaren

1era arte izango dute bozkak emateko aukera, udalaren web atarian.

Epaimahai tekniko ere bai

Iragarri dute, urtero bezala, herritarren iritziekin batera, "epaimahai tekniko" batena ere kontuan hartuko dutela afixa irabazlea izendatzeko. Epaimahai hori "gai adituak diren zenbait herritarrek" osatuko duela ere argitu dute. Prozesu hori amaitutakoan iragarriko dute irabazlea zein den.



Azokaren antolatzaileak, jarduera aurkezteko prentsaurreakoan. TXINTXARRI

Lore eta landareak erosteko aukera izango dute herritarrek

XI. Lore eta Landareen azoka aurrera eramango dute bihar, hilak 20, Okendo plazan, 10:00etatik 14:30era

Txintxarri

Lore eta landareen erakusleihu bilakatuko da Okendo plaza larunbat honetan, hilak 20. Behe-mendi Elkartek, deKolare Natur Azokak eta Lasarte-Oriako Udala dira antolatzaileak, eta iragarri dute, ohi bezala, Okendo plazan egingo dela aurtengoa ere. Bi ordu eta erdiko tartea izango dute bertaratzen direnek produktuak ikusi edota erostera joateko; etxeko txikien entretenimendurako, aldiz, jolas eta tailerrak izango dira.

Hamabi postuk osatuko dute aurtengoa. Izango dira, horien

artean, landare eta lore naturalak eskainiko dituztenak, baita haziak, kosmetika naturaleko produktuak, edota lore eta landareekin egindako bitxi eta bestelako produktuak salduko dituztenak ere. Horien guztien artean, bat lasarteoriatarra, hazi ekologikoena.

Antolatzaileak "pozik eta eskertuta" agertu dira beste urtebetez egitasmoa aurrera eramango dutelako, eta herritarrei dei egin diete kalera irten eta azokaz goza dezaten. Gaineratu dute "arrakasta handia" duen hitzordu bat izaten dela.



LASARTE-ORIAKO UDALA

100 urte bete ditu Gonzalezek

Udal ordezkarien bisita jaso du Julio Gonzalez herritarrek bere ehungarren urtebetetze eguean. Lore sorta eder bat jaso du Agustin Valdivia alkatearen eta Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedoren eskutik, eta ospakizun ederra egin senideekin. Extremadura La Garganta herrian jaio bazen ere, duela 62 urte etorri zen Lasarte-Oriara bizitzera.

Alex Garcia herrikidea, Tailandiatik itzultzeko zain

Asiako herrialde horretako ospitale pribatu batean daramatza bi hilabete eta bere osasun egoera larria da. Azken berrien arabera, Espainiako Gobernuak hegazkin medikalizatu bat prestatzen ari da pazientea Euskal Herrira bueltan ekartzeko

Txintxarri

Tailandiara bidaiatu aurretik medikuarenera joan zen Garcia, egun batzuk zeramatzalako botaka egiten eta beherakoa-ekin. Ez larritzeko esan zion, aireak izango zirela. Diagnostiko horri men egin eta Asiara joatea erabaki zuen bikotearekin batera baina ez zuen hobera egin. Kontrara, otsailaren 25ean Tailandiako ospitale pribatu batean ingresatu behar izan zuten eta pankrearen ia erdian nekrosia zuela atzeman zioten. Usoa Martinez emazteak berriki *Onda Vasca* irratia iramandako elkarrizketa batean kontatu duenez, erietxe horretako "lehen arretako langileek" salbatu diote bizia.

Garcia bizirik dago oraindik baina "egoera oso larria" eta Euskal Herrira itzuli ezinik. Bidaiarekin batera kontratatu zuten aseguruaren 100.000 euroak gastatu dituzte honezkero eta, gainera, 260.000 euro inguru ordaindu behar izan dituzte honezkero: batetik, erietxe eguneroko gastuak pagatzeko, eta, bestetik, azkenean erabili ezin izan duten hegazkin medikalizatu bat kontratatzeke. Egoera horren aurrean, familiak eta lagunak duten "itxaropen bakarra" da Espainiako Gobernuak



Usoa Martinez eta Alex Garcia. ALEX GARCIAREN FAMILIA ETA LAGUNAK

ezaugarri horiek dituen abioi bat pleitatzea da. Horri lotuta, *El Diario Vasco* egunkariak argitaratu duenez, Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioak tramiteak hasi ditu pazientea "ahal bezain laster" bueltan ekartzeko. Antza denez, aireontzia prestatzen hasi dira eta zenbait urrats egiteke dituzte, hala nola, hegan egiteko baimena lortzea. Izan ere, hegazkin hori medikalizatua izango da baina militarra ere bai eta zenbait herrialderen aire espazioa zeharkatu behar du. Edonola

ere, badirudi datozen egunetan itzul daitekeela Garcia eta Osakidetzari abisatu diote honezkero. TXINTXARRI-ren 1.664. zenbakia inprentara bidaltzerako unean hori zen egoera.

Dirua biltzeko kanpaina

Aipatu egoera horrek Garcia-Martinez sendiari eragindako kostu ekonomikoa finantzatzeko laguntzeko, *crowdfunding* sistema bidez dirua biltzeko kanpaina bat abiatu dute herrikidearen lagunak. Gutxieneko ekarpena 5 eurokoa da eta honezkero



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Aldaketa

Igande arratsaldean etxean, zerbait idazteko nahian eta ezinean ia etsirik. Mahai gainean paperak, paper zuriak, idatziak, zimurtuak, hutsak, beteak edo erdi hutsak. Aldaketa bat behar du egoera honek eta behaketa horretan nabilela, kale ertzeko gerezio japoniarrak ikus ditzaket loratzen etxeko balkoitik begira; oraindik xalo eta sotil, baina edertzen. Auzoko paisaia zinez aldatu da azken aste hauetan, koloretsu eta alai suma daiteke.

Aurten sagarrondoak kimatu gabe geratu zaizkit, negu hotzaren zain egon bainaiz, eta aurten ere neguak izkin egin eta kale egin dit. Negurik egin badu behintzat, hotzikara handirik sortu gabe joan da; aldaketa klimatikoaren eragina omen da.

Iragan astean entzun nuen aurreneko kukua aurten, ilusioa egin zidan kanta berezi eta pausatua entzuteak. Naturak oparitzen digun plazer horietako bat da, gozatu beharrekoa, huskeria bada ere, negutik udaberrirako aldaketaren aldarria. Zein xume baina zein bortitz, izadiaren etengabeko aldaketa prozesuan murgildurik eta geldiezin, aurrera atzera bueltarik gabe, eta guk ezin hori aldatu. Guk ezin dugu gerezioaren lorerik aldatu, ezin dugu kukuaren kantarik aldatu, ezin dugu urtarorik aldatu, baina gure esku dagoena, bizi garen mundu hau aldatzearena da.

Gu jaio ginen munduak eta oraingoak ez dute antzekotasun handirik. Gu ere aldatuz eta aldatzen goazen bezalaxe. Zeruan hegan jira-bira eroan dabiltzan enaren gisara gabiltzala uste dut, atsedetik gabe, pausatuz ezinik, biharko ezinaren aukeran gaur eginik hobe delakoan. Oinak lurrean ez dituenaren ziurtasun falta bezala, ertzik gabeko errotarrian biraka hautsa ehotuz. Errotaren martxa alferrikakoa izan ez dadin, aldaketa bat behar dugulakoan, jar dezagun bakoitzak aldaketarako aletxoak, eta alez ale eraikiko dugu bere hizkuntza eta kultura propioaren jabe den euskal nazio bat.

115.000tik gora jaso dituzte (221.000 euro biltzea da helburua). Egitasmo horren sustatzaileek eskerrak eman dizkiete orain arte ekarpenen bat egin duten 3.000 pertsona baino gehiagori.

Herrikideak Tailandian daramatzen bi hilabete hauetan txandak egin dituzte emazteak eta beste senide batzuek uneoro berarekin egiteko. Bangkok hiriko ospitale pribatu horretan

bi pertsona egon daitezke aldi berean pazientearekin, asko jota.

Ekarpenak egiteko:



USURBILGO NOAUA!k publizitate arduraduna behar du

Eskatzen dena:

- Kazetaritza, publizitate, ikus-entzunezko komunikazio edo marketin arloko ikasketak.
- Diseinu lanak egiteko ahalmena
- InDesign, Adobe Photoshop, Canva... Harremanetarako dohainak.
- Publizitate kanpainak definitu eta diseinatzeko gaitasuna.
- Euskararen goi mailako ezagutza.

Kontuan izango dira:

- E-posta marketin-erako ezagutzak: MailChimp edo antzerako softwareak
- Gidabaimena izatea
- Berehala lanean hasteko prestutasuna.

Eskaintzen dena: Urtebeteko lan-kontratua, jardun erdikoa, epea luzatzeko aukerarekin.

Bidali curriculumak elkarte@noaua.eus helbidera, apirilaren 26a baino lehen, "Publizitate arduraduna" erreferentzia adieraziz.



Bizipoza osatzen duten elkarteetako batzuetako nahiz herriko ikastetxetako ordezkariak, egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

Lasarte-Oria zipriztinduko du Bizipozaren jaiak

Gure udalerrian eratu duten Bizipoza taldeak eta herriko ikastetxeek hilabeteotan elkarrekin landu duten guztia erakutsiko dute hilaren 26an, Okendo plazan eta Antonio Mercero aretoan aurrera eramango duten ekitaldi baten bidez

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hilabete euritsua izan ohi da apirila, zipriztin askokoa. Edonola ere, tanta guztiak ez dira ura eta denek ez dute gorputza berdin bustitzen. Lasarte-Oriako Bizipoza taldea eta herriko ikastetxeek, esaterako, herritarren bihotz eta gogoak inklusioz, aniztasunez eta euskaraz isuriko dituzte hilaren 26an, Bizipoza Eskola izeneko egitasmoa aurkezteko egingo duten jaialdian. Egitarauko (alboko taulan irakur dezakezue, osorik) jarduerak Okendo plazan eta Antonio Mercero aretoan egiteko asmoa dute. Eguraldi txarra egiten badu, enparantzako ekimenak Oriarte Landaberri instituturara eramango dituzte.

Ekitaldia pertsona hauek aurkeztu dute: Bizipozaren koordinatzaile Leire Elizegi Belokik, Maratoialdiko zortzikoteko kide

Coro Dominguez Rodriguez eta Joxe Mari Agirretxe Kerexetak, herriko ikastetxetako ordezkari Lorea Goenaga Olaizola eta Oriarte Pampliega Aguilarek, Ostadar Inklusioa kide Ainhoa Arruti Loyartek, Naizen elkarte lagun Marijo Martinez Ruizek, Aspanogi elkarte guraso Laura Hueso Alvizek eta Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oriako kide Tomas Arruti Aldalurrek.

Hilabeteotan landutakoa

Elizegik azaldu duenez ikastetxetako irakasleek Bizipoza Eskolari buruzko aurkezpen-for-

DANTZAK, AURKEZPENA, MAHAI INGURUA... EGINGO DITUZTE 15:15ETIK AURRERA

makuntza jaso dute arduradunaren eskutik. Horrez gain, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako mailetak haurrek ere izan dute ekimenaren berri, Porrotx pailazoak egindako saio ludikoago batzuen bidez. Azkenik, hezkuntza zentroak hasi dira proiektuan jasotako gaiak lantzen. Goenagari "oso interesgarria" iruditzen zaio: "Haurren eta familien ongizatea dira gure helburuak eta proiektua primeran etortzen zaigu norabide horretan lan egiteko". Pampliegak azaldu du tutoretza saioak erabiltzen dituztela Bizipoza Eskolan jasotako ikasleekin jorrazteko: "Pozik gaude zipriztindu egin garela honezkerok, oso anitza da gure eskola eta garrantzi handia ematen diogu hori zaintzeari".

Esan bezala, herriko ikastetxetako ordezkariekin batera

Hilaren 26ko ekitaldiaren egitaraua

Okendo plazan (eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutuan) eta Antonio Mercero aretoan aurrera eramango dute Bizipoza jaiak.

- **15:15ean, Okendo plazan**, ikastetxeek herria zipriztinduko dute, Okendon. Koreografiak dantzatu eta jaialdirako propio prestatutako pankartak erakutsiko dituzte, besteak beste. Porrotx pailazoak aurkeztuko du saioa.
- **18:00etan, Okendo plazan**, Bizipozan parte hartzen duten elkarteek zipriztinduko dute Lasarte-Oria. Euskararen 10. Maratoialdiko zortzikoteko aritutako zenbait kide ariko dira beraiekin.
- **18:30ean, Antonio Mercero aretoan**, Bizipoza Eskola egitasmoa aurkeztuko dute proiektu horren koordinatzaile Nerea Godoy Fuentes eta Bizipozaren koordinatzaile Leire Elizegi Belokik. Ondoren, mahai inguru bat egingo dute eragile hauekin guztiekin: Ttakun Kultur Elkarte; Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Oriarte ikastetxeak; Amassorain ikastola; Ostadar Inklusioa; Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria; Aspanogi elkarte; Naizen elkarte; eta Izan Iñurri elkarte. Ekitaldi horretan parte hartuko dute baita ere Earra bertso eskolako kideek eta Maialen Aristegi kantautoreak.

esertzen dira mahaian Lasarte-Oriako Bizipoza Taldeko eragileak. Arruti Loyartek esplikatu du Ostadar Inklusioa egin eta bilatzen duena: "Aniztasun funtzionala duten ikasleen inklusioa lortu nahi dugu eta kirola egiteko duten eskubidea aldarrikatu. Bocchia, eslaloma, multikirola eta atletismoan aritzeko aukera eskaintzen diogu eta zabaltzen ari gara poliki-poliki: gaur egun hogeita bat kirolari ari dira gurekin lanean". Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkartearen izenean Martinez aritu da eta Bizipozaren lanaren balioa nabarmendu du: "Oso garrantzitsua da gure haur eta nerabeen egoera ezagutarazi, munduratu eta plazaratzen lagundu digulako. Lasarte-Oria ere hori egin nahi dugu". Ildo beretik mintzatu da Aspanogi Haur eta Nerabe Minbizidunen Guraso Elkarte (250 bat familiak osatzen dute, horietako batzuk gure herrikoak dira) kide den Hueso: "Asko ikasten ari gara Bizipozari esker, batez ere, zeinen garrantzitsua den guztien artean lan egitea errealitate desberdinak ezagutarazteko". Azkenik, sahararren alde lanean ari

den eragilea zertan den jakinarazi du Arruti Aldalurrek, Oporrak Bakean egitasmoan fokua jarrita: "Haur sahararrak hartzen ditugu gure etxeetan uztailean eta abuztuan, uda hemen igaro dezaten; Lasarte-Oriako bi familia animatu dira aurten".

Eragile horiekin guztiekin batera ariko dira Euskararen 10. Maratoialdiko zortzikoteko kideak hilaren 26ko jaian, 2022ko urrian egin bezala. Dominguez: "Plazera izango da beste behin ere guztiok elkartzea eta gure herria zipriztintzea". Ildo horretatik, "Euskal Herria euskal irri" bilakatuko dutela aurreratu du Agirretxek: "Elkarte horiek bezala, euskara bada behar bereziak eta eskubideak dituen hizkuntza bat, normalizazioa nahi duena".

Hezkuntza inklusiboaren premia

Irabazi asmorik gabeko gizar-tegintza egitasmo bat da Bizipoza Elkarte eta urteak daromatza helburu honen alde lanean: "izaera bereziko gaiak" lantzen dituzten haur eta familien ongizatea bilatzen duten elkartei (38 dira gaur egun) laguntza afektiboa eta materiala ematea. Norabide horretan urrats bat gehiago egin du berriki, Bizipoza Eskola onduta. Elizegiren hitzetan, "hezkuntza inklusiboaren beharrari" erantzutera dator proiektu hori, "denona eta denontzat izango den Euskal Herria eraikitzeke".

"HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN BEHARRARI ERANTZUTEKO" SORTU DUTE ESKOLA

Herritarren boto eske, azken egunera arte

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dituzte igandean, hilak 21. Alderdi politiko desberdinek gure udalerrian dituzten udal taldeetako kideek zenbait ekimen aurrera eraman dituzte lasarteoriatarrengana gerturatu eta eurak konbentzitzeko asmoz

Txintxarri

Igande honetan (hilak 21) izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eta aurreko egunetan zenbait ekintza aurrera eraman dituzte alderdi politikoez Lasarte-Orian dituzten udal taldeek. Gauzak horrela, Gipuzkoako zerrendan doazen hiru kide gonbidatu zituen EH Bilduk Antonio Mercero aretora hilaren 16an, herritarrek aurreko biak: Susi Sanz, Tasio Arrizabalaga eta Manuel Diaz de Rabago.

Zerk eraman zaituzte zerrendakide izatera? Hori izan zen solasaldiaren moderatzaile eta udal korporazioko zinegotzi Uxue Loinazek egin zien lehen galdera. "EH Bildurekiko loturak eta konpromisoak; nire etxea da", erantzun zuen Arrizabalagak. Koalizio subiranista iruditzen zaio hezkuntzaz, politika ekonomikoaz, Espainiar Estatuarekiko harremanaz eta beste alor ugari erabakitzeko tresna egokienak ematen dituen. Sanzek "sustoa" hartu zuen proposamena jaso zuenean baina eman dio buelta egoera horri. Pertsona gaztea eta mugimendu feministan lanean dabilena izaki, bi ezaugarri horiei eman die balioa: "Zapalkuntza oro gainditzeko politikak gauzatzeko lan lehen lerroan egon behar dugu gazte eta feministak".

Diaz de Rabagok nabardura bat egin zuen azaltzeko bera ez dela EH Bildukoa baina alderdi hori babesten duela, "gobernu ezkertiar zabal" bat duelako amets eta koalizio subiranistak barnebiltzen dituelako ongien horretarako ezaugarri eta baldintzak. "Parte hartzea eta kolaboratzea plazera da niretzat. Are gehiago esango dizuet, irabazi egingo dugu eta Susi legebiltzarkide izango da!". Antonio Mercero aretora bertaratutakoek gogo onez hartu zuten zerrendakidearen baikortasuna. Gipuzkoako zerrendako 12. postuan doa Sanz.

Amu horri heldu zion Loinazek solasaldiarekin jarraitzeko, hau da, EH Bilduk igandeko bozaz irabazteko dituen abaguneei. "Aukera erreala da". Horri buruz zer pentsatzen duen galdu zion Sanzi. "Igandean bi eredu izango dituzte aukeran herritarrek: zaharkitua bat, EAJ eta PSE-EE-rena, agortuta dagoena; eta herritarren beharrezko lehenetsi eta herri akordioak egingo dituen bestea, gurea. Herritarrek politika publiko eraldatzaile eta ezkertiarrek nahi dituzte: aldaketa badator".

Aldaketa hori alor guztietan egin behar dela berretsi du Arrizabalagak, eta, batez ere, "zerbitzu publikoen desintegrazioa" geldit-

zteko buelta eman behar zaiola egoerari. Osasungintza eta etxebizitza nabarmendu ditu, bi adibide jarrita: batetik, Osakidetza-aren aplikazioan sartu eta lehen hitzordu librea hilaren 26an zela; bestetik, etxeen prezioen igoera "basatiaren" eta gazteek emantzipatzeko dituzten arazoaren aurrean Lasarte-Oriako PSE-EEk azken urteetan aurrera eraman duen politika, "duen lursail guztiak saldu diru azkarra lortzeko".

Diaz de Rabagok adierazi du "kotoiaren frog" bezalakoa dela herritarrek herrietako udal-txeak osatzeko bozkatzaren dutena: "2019an 44 alkate lortu zituen EH Bilduk eta udalerrri guztietan berdindu edo hobetu dituzte emaitzak; EAJrekin eta PSE-EErekin alderantziz gertatu da".

EAJ eta PSE-EE, azokan

Jeltzaleak eta sozialistak Andatza plazako azokara igo ziren hilaren 17an herritarrekin hitz egin eta euren boto "garrantzitsua" eskatzeko. Merkatutik buelta bat eman eta material ugari banatu zieten erosleei: boto paperak eta gutunazalak, gozokiak, boligrafoak eta larrosak, hain zuzen ere.

Igande honetan 14.770 lasarteoriatar deituta daude botoa ematera.



EH Bilduren mahai inguruko une bat. Susi Sanz, erdian, hizketan. TXINTXARRI



EAJko udal taldeko kideak Andatza plazako azoka sarreran izan ziren. TXINTXARRI



PSE-EEko kideek, ohi bezala, larrosak banatu zituzten. TXINTXARRI

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINTZA
ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus



Bazkidetza indartuko du Ttakun Kultur Elkarteak

Eragile horren proiektua babestea erabakitzen duten herritarrek egitasmo eta programa ugari laguntzeaz gain zozketa paregabean parte hartuko dute hileroko-hileroko. 18 eta 30 urte arteko gazteentzat eskaintza berezi bat prestatu dute

Txintxarri

Euskara eta euskal kultura gure herrian normalizatzeko lan egiten duen Ttakun Kultur Elkarteak ez du bakarrik egin hiru hamarkada pasatzeko ibilbidea: langileak, kolaboratzaileak, babesleak, laguntzaileak, eta, nola ez, bazkideak ditu bidelagun. 400 pertsona baino gehiago igo dira euskararen eta kulturaren trenera baina bagoia ez da bete oraindik: denentzako tokia dago.

Hori horrela izanik, euskara elkarteak bazkidetza egitasmo bat jarri du martxan. Bat egiten dutenek 60 euro ordainduko dituzte urtean eta eragile horren



Sorgin Dantza da Ttakunen jardueretako bat. TXINTXARRI

makina bat programa eta ekimen babestuko dituzte, hala nola, haur, gazte eta helduentzako aisialdia, kultur jarduerak edota TXINTXARRI aldizkaria. Horrez gain, zozketa paregabe batzuetan parte hartuko dute hileroko. Hona hemen bi adibide: batetik, bazkideek Errigorako saski pare bat irabaz ditzakete, eta, bestetik, Okendo Zinema Taldearen Euskal Dokumentalen Zikloko bi emanalditarako sarrera bakoitzak eskuratu. Hilabetearen arabera beste produktu, otordu edota erosketa txartelak eskainiko dituzte, herriko komertzioetan erabiltzekoak. Informazio gehiago, aldizkariaren kontrazalean.


Ttakunenea, elkargune

Ttakunenea elkarteak erabili nahi duten pertsonak osagarri bat ordaindu behar dute: banakako kuota 18 eurokoa da hileroko eta bikotekoa, berriz, 25 eurokoa. Iñigo de Loiola kalean dagoen elkargune horrek bi eremu ditu: nagusia bat, mota askotako jarduerak aurrera eramateko; eta jangela-sukaldea bestea, otorduetan egiteko.

Gazteei, eskaintza berezia

Ttakun KEk kontuan izan du herriko gazteen egoera eta haien neurria egokitu du bazkidetza eskaintza. Gauzak horrela, 18 eta 30 urteko herritarrek urtean 30 eurogatik egin daitezke elkarte bazkide eta onura berberak izan, hau da, zozketetan-eta parte hartuko dute.

Ikasketetako lan, proiektu eta bestelakoak aurrera eramateko elkargune eroso da Ttakunenea. Hilabetean 10 euro ordainduta eremu hori erabil dezakete.



Gipuzkoakora sailkatu nahi du Rekondok

Eskoriatzan hasiko da lurralde horretako bertsolari txapelketarako sailkapen fasea, hilaren 25ean. 74 bertsolarik parte hartuko dute saioetan, tartean, Lierni Rekondok. Oñatiko Santa Ana antzokian ariko da lasarteoriatarra, maiatzaren 17an, 19:00etan

Txintxarri

Udazkenean jokatu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Ziurra da data baina ez nortzuk parte hartuko duten, izan ere, hilaren 25ean hasi eta ekainaren 2an amaituko den sailkapen fase bat aurrera eramango dute hori erabakitzeko. Gauzak horrela, 74 bertsolari ariko dira koplaka hogeitaz, bi itzulitara. Bigarren errondara 48 pertsona sailkatuko dira eta horietatik 34k poltsikoratuko dute udazkeneko hitzordu handirako txartela.

Lierni Rekondo lasarteoriatarra da Gipuzkoa Bertsotan izeneko sailkapen fase horretan



Rekondo, sanpedro batzuetako jaialdian abesten. TXINTXARRI

parte hartuko duen 74 bertsolarietako bat. Maiatzaren 17an (ostirala) jokatu du Oñatiko Santa Ana antzokiko saioa beste bost lehiakidarekin batera: Aimar Sorazu, Andoni Rekondo, June Aiestaran, Maddi Aiestaran eta Maide Garmendia.

Urteurren berezia

Sailkapen fasearen antolatzaile den Gipuzkoako Bertsosale elkarteak jakinarazi du 50 urte bete direla aurten lurralde horretan lehen bertso eskola sortu zutenetik. Urteurren berezi hori "behar bezala" ospatzeko afari meriendak egingo dituzte saio bakoitzaren ondoren. Lehen fasean hamabi kanporaketa jokatuko dituzte eta bigarrenean, berriz, zortzi.

Aipatu urtemugaren ildotik diseinatu dituzte sailkapen faseko mezua eta irudia. "Unai Gaztelumendiren ilustrazioak bertso eskoletako lehen belaunaldi inguruko irudiak dakartza, behean Uztapide duela. Zuri-beltzeko argazki horretatik gaur eguneko bertso unibertsoa heltzeko ezinbesteko pausoa izan dira", azaldu du Bertsosale elkarteak.

Borobilean elkartearen saiora joateko gonbita egin du Ernaik

Herriko gazteak datorren asteartean, hilak 23, Borobilean elkarteak *Lasarte-Oriak gaztetxea behar du?* izenburupean aurrera eramango duen saiora joatera gonbidatu ditu herriko Ernaik. Antolakundeak gogora ekarri du zein espazio eta ordutan izango den hitzordu hori: Oriarte Landaberri institutuan, 19:00etan.

Gaiak hitz egiteko, solasaldira deitu dituzten lau eragileak zeintzuk diren ere oroitarazi du. Birunda Donostiako Alde Zaharreko gune autogestionatuko, Usurbilgo Elkarguneko, eta Añorga zein Orioko gaztetxeetako kideek hitz egingo dute, eta euren esperientziak kontatuko. Horiakin batera, Ernaiko kideek ere hitza hartuko dute; gazteek Lasarte-Orian bizi duten egoeraren gainean egindako analisia azalduko dute.

Gauzak horrela, gazte lasarteoriatarrek bertara daitezten nahi du Ernaik; ez hori bakarrik, ordea; horiek hitza eta erabakia hartzera, komunikatzera eta elkarrekin amestera ere deitu ditu.

Gurasoen bizipenetatik abiatutako lanak

Okendo Zinema Taldeak aurtengo Euskal Dokumentalen Zikloko lehenengo bi proiektzioak aurrera eramán ditu. Beste bi emanaldirekin itxiko du aurtengo egitaraua hilaren 26an eta 27an: 'Cabeza y corazón' eta 'Mirande' ikusi ahalko dituzte herritarrek

Txintxarri

Euskal Dokumentalen Zikloari ekin zion Okendo Zinema Taldeak emanaldi bikoitzarekin: hilaren 12an, Iratxe Fresneda bilbotarrak zuzendutako *Tetuán*, eta hurrengo egunean, Maria Elorza gasteiztarren *A los libros y a las mujeres canto* proiektatu zituzten. Proiektio bakoitzean, gainera, zuzendari bakoitzarekin hitz egin zuten eragileko kideek nahiz kultur etxera bertaratutako ikus-entzuleek.

Arazo teknikoren bat tarteko, lehenengo saioa moldatu behar izan zuten. Hala, filmaren aurretik hitz egin zuten Fresneda-rekin Tetuan eta Euskadi lotzen dituen lanari buruz. Lau etorkinen bizipenak eta Fresneda-rena berarena nahasten ditu kontakizunak. Zuzendariak bere aitaren iraganarekiko duen jakin-mina medio, bidaia egingo du Tetuan, Almeria, Madril, Pirinioak, Euskal Herria eta Errumaniako herri batean barrena.

Elorzaren lanak ere nolabait lotura du bere gurasoekin. Izan ere, proiektuaren abiapuntua bere amak izandako istripu bat da: etxeko liburutegiko apalategietako bat gainera erori zitzaion. "Txantxa moduan" eta "helburu jakinik gabe" hasi zuten



Maria Elorza, mikrofonoarekin, hilaren 13ko emanaldiaren ostean hitz egiten. TXINTXARRI

grabaketa gasteiztarrek. Bere kabuz egin zuen dena, "inprobisaziotik, intuizio batetik", material horrekin film bat egiteko asmorik gabe.

"Belaunaldi baten erretratu da, Literaturarekiko maitasuna transmititzen du", adierazi zuen Elorzak. Lanean agertzen diren emakumeak belaunaldi berekoak dira, Anne zuzendariaren ahizpa izan ezik, eta literaturarekin harreman berezia dute. Ama italiar literatura irakaslea zen eta haren lagunak dira gainerakoak. "Umore asko dute denek

eta Literaturaren ikuspegi praktikoa, bizi eta praktikatzan dute, egunerokoan integratuta dute".

Zikloaren hurrengo emanaldiak hilabeteko azken asteburuan aurrera eramango dituzte. Hilaren 26an Ainhoa Andra eta Zuri Goikoetxearen *Cabeza y corazón* lana emango dute eta hurrengo egunean Josu Martinezen *Mirande*. Horiek guztiak kultur etxera etorriko dira. Proiektzioak 20:00etan hasiko dira eta bakoitzerako sarrerek 6 euro balio dute.



TXINTXARRI

Atari zabaleko dantzalekua

Musika elektronikoaren gune bilakatu zen Okendo plaza dozenaka herritarrentzat, hilaren 13an. Dantz Point jaialdia arratsaldeko seieta hasi zen eta gauerdia bitartean house, deep, techno house eta beste estilo batzuetako musikaz gozatu eta haien erritmora dantzatzeko parada izan zuten bertaratutakoek.



TXINTXARRI

Herritarren atxikimendu bila

Clasicos Lasarte-Oria elkarteak sinadurak bildu ditu Okendo plazan. Duela aste batzuk manifestazioa egin zuten udalak halako ibilgailuei ezarritako hoberia ezabatu duelako. Erabakia atzera bota dezan eskatzeko atxikimendua eskatu diete mahai ingurutik pasatu direnei. Elkartekoen ustez, "erabat inkoherentea" da "automobilismo klasikoaren sorlekua izateaz harro dagoen herrian".

Kulturgintzatik erreparatu diote herriko parte hartzeari

'Berrikuntza politikoa esploratzen' zikloko bigarren solasaldia aurrera eramán du Oreki fundazioak

Txintxarri

Herriko partaidetza bere zentzurik zabalenean ulertzeko asmoarekin gazte, elkarte eta erakundeen ahotsa jaso du Oreki fundazioak. Horrela, saioaren lehen zatian, Julen Basterra

musikari lasarteoriatarra, Kexus Marcos Danok Kide eta Lasarte-Oriako Bizikidetzaren taldeko kidea eta Nagore Duran Partaidetza eta gardentasuna saileko arduradunak gaiarekiko haien hausnarketak partekatu dituzte,

bakoitzak bere esperientziatik. Ondoren, bertaratutako lagunei eman diete hitza; ekimen kulturalak aurrera eramateko zailtasunak, kultur elkarten bilakaera, belaunaldi arteko txandakatzearen beharra eta administrazioaren eta eragileen arteko deliberazioaren premia mahaigaineratu dituzte.

Hilaren 22an izango da hurrengo hitzordua, Ttakunenea elkartearen, 18:30ean. Partaidetzaren egoera landuko dute, euskalgintzaren ikuspegitik.



Ezker-eskuin, mahaian: Marcos, Basterra eta Duran. OREKI FUNDAZIOA



Osasun publiko eta kalitatezko bat eskatzeko manifestazioa azken urteetan herrian egindako jendetsuena izan zen. Irudian, manifestariak Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI

Ehunka pertsona atera dira kalera

Osasun publikoak bizi duen egoeratik kezkatuta Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataforma bat eratu berri du herritar talde batek. Aste gutxitan milaka sinadura bildu dituzte eta azken urteetako manifestazio jendetsuena aurrera eraman

Maitane Aldanondo-Iñigo G. Sarobe Osasun publikoak, oro har, eta herriko anbulatorioak bizi duen egoeratik kezkatuta, duela aste gutxi Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataforma eratu zuen herritar talde batek. Aste gutxitan milaka bildu dituzte eta hilaren 12an ehunka herritarrek bat egin zuten taldeak deitutako mobilizazioarekin. Anbulatorioetik abiatu zen manifestazioa eta leku berean amaitu ia ordu bete geroago, erdiguneko kale nagusietan barrena ibili ondoren.

Jendetza bildu zen osasun etxearen aurrealdean ekintza hasi aurreko minutuetan. Deitzaileetako batzuek eutsi zuten *Osasun publikoaren alde. Lehen arreta indartu* lelodun pankarta eta haien atzean biltzen joan ziren herritarrak. Ilada luzea

osatu zuten eta Elizatze plaza zeharkatuta Kale Nagusian aurrera egin ahala agerikoagoa egin zen adin tarte guztietako lasarteoriarrek osasun zerbitzu publikoaren aldeko aldarriari emandako babesa. Tajamar biribilgunea inguratu eta Geltoki kaletik Askatasuna plazara joan ziren, handik Oken-do plaza zeharkatu eta Kale Nagusira bueltatu ziren Zumaburura bidean. Abiapuntuan amaitu zen ibilbidea osatu artean zenbait aldarri oihukatu zituzten partaideek: *Osasunaren alde, elkarrekin hobee; Osasun sisteman konponbidea eman; Osasuna eskubidea da; Osasuna, berdintasuna...*

Manifestazioaren burua anbulatorioiko eskaileren goiko aldean jarri zen eta haien aurrera eta ingurura hurbil zitezten eskatu zieten partaideei. Azken

manifestariak iritsi artean, txoko batean plataformaren eskarien aldeko sinadura bilketa egin zuten. Denak heldu zirenean Carmen Bellok, euskaraz, eta Purificacion Prietok, gaztelaniaz, irakurri zuten deitzaileen adierazpena.

Anbulatorioan osasun arloko profesionalik ez egoteak eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) egindako kudeaketa eskasak lasarteoriarren eragindako ondorio "oso larriak" laburbildu zituzten (ikus 9. orriko taula).

Hori horrela, kalitatezko osasun zerbitzu publikoa desgaiten ari direla "egiazatu" dutenez, protesta egitea erabaki zuten, egoera ez baitzaie kasuala iruditzen. "Ez da kasualitatea, osasun-laguntza pribatizatze politikak kontziente baten emaitza da, osasun sistema dual ba-



Herriko osasun zentro ataritik abiatu zen mobilizazioa. TXINTXARRI



Hasitako toki berean bukatu zuten mobilizazioa. TXINTXARRI

tetara garamatzana". Hau da, osasun sare pribatua, ordaintzeko diru nahikoa dutenentzat, eta osasun sare publikoa, "eskasa eta desgaiturata", txiroentzako eta gizarte sektore babesgabeentzako. "Onartezina" zaie osasunerako eskubidea oinarritzako giza eskubideetako bat

baita, "ez negozioa egiteko merkantzia".

Adierazpenaren zenbait unetan, bertaratutakoen txalo zaparradak eten zuen irakurketa. "Gora osasun publikoa" oihuarekin amaitu zuten eta oraindik egin ez zutenek beren sinadura emateko aukera izan zuten.



Oraindik zenbatzeko dituen atxikimendu mordo bat bildu ditu LOOPAK. TXINTXARRI



LOOPAKO zenbait kide, elkarren artean solasean. TXINTXARRI

LOOPA plataformarekin elkartu da TXINTXARRI manifestazioa egin eta egun batzuetara. Ekintza horren balorazio "oso positiboa" egin dute partaideek: "Espero genuena baino jende gehiagok parte hartu du; ikusi dugu kalean dagoela haserre eta herritarrek euren ezinegona adierazteko go-go dutela". Balioan jarri dute "adin eta kolore desberdinetako pertsonak" bat egin izana.

Mobilizazio horren ostean, zer? Plataformako kideek esan dute ideiak badituztela baina biltzen eta hitz egiten segi behar dutela datozen aste eta hilabeteetako bide orria definitzeko. Hori bai, ziurtatu dute euren jarduna ez dela orain bukatuko, noiz eta martxa hartu berri dutenean. Herri plataformen koordinakundeak proposatutako sinadura bilketa abian jarri dute eta hilaren 12ko manifestazioa baino lehen 1.200 bat bildu zituzten. Manifestariak osasun zentrorira iritsi eta komunikatua irakurri ostean makina bat atxikimendu gehiago jaso zituzten. "Oso denbora gutxian eta zeregin horretara indar berezirik biderratu gabe, firma mordo bat jaso

ditugu. Ez dakigu zenbat diren zehazki, aurreko egunekoak kontatu gabe ditugulako".

"Polita izan da elkarren berri ez genuen edota bistaz bakarrik ezagutzen ginen herritarrek elkartzea plataforma honetan", azpimarratu dute LOOPAKO kideek. "Osasungintza publiko eta kalitatezko baten alde ari gara lanean, ulertzen dugulako herritarren eskubideetako bat dela. Elkarrekin gaude horretan, guztioi eragiten digulako Osakidetzaren gaur egungo egoerak". Ildo horretatik, nabarmendu dute talde irekia dela eta beso-zabalik hartuko dutela egitasmoarekin bat egin nahi duen edonor. Interesa duenak lasarteoriaopa@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar du beraiekin harremanetan jartzeko.

"Lasarte-Orian, zergatik ez?"

Osasun sistema publikoaren gainbeheraren aferak herri ugaritako biztanle asko arduratzen ditu eta urteotan makina bat herri plataforma sortu dituzte tokian-tokian. Zenbait lasarte-riatarrek aurten egin dute urra-

tsa, buruan zuten ideia gorpuztuta: "Donostian-eta egin dituzte manifestazioak, ikusi ditugu eragileak protestan... 'Lasarte-Orian, zergatik ez?', pentsatu dugu". Ekimena abian jartzeko "txinparta", batzuen esanetan, Borobilean Elkartek urtarrilean zaintzari buruz aurrera eraman zuen saioa izan daiteke. "DOPA Donostia Osasun Publikoaren Alde plataformako kide Kontxi Rebollo izan zen hizlarietako bat eta eman zigun zer pentsatua". Gerora, pertsona horrekin bildu dira Lasarte-Oriako taldea martxan jartzeko. "Berarekin hitz egiteak lagundu digu proiektuari forma ematen".

Plataforma bat eratu, zertarako? "Herritarren kezka bati bidea emateko modua da, gaia lehen lerroan jarri eta desberdinen arteko eztabaida gune bat sortzeko. Izan ere, osasungintza publiko eta kalitatezko baten alde lanean ari garela argi dugu baina horren baitan ikuspegi diferenteak egon daitezke". Talde bat abian jartzekoan "arazoetako bat" jendea erakartzea izan ohi den arren, LOOPARI ez zaio gertatu: "Oraindik hastapenetan gauden arren, inori etortzeko eskatu gabe ere asko izan dira bertaratu direnak". Kideetako batzuk, esate baterako, jubilatutako dira: "Iruditzen zaigu eragile honen bidez aukera izan dutela euren kezka azalartzeko; hori bada horrelako egitasmoen balioetako bat, gure ustez".

Gardentasun falta

"Ea norekin tokatzen zaidan gaur". "Gaur ere hiru mediku falta dira". "Lasarte-Oriako osasun zentroan plantillaren %55 falta da". Horiek dira plataformako kideek entzun dituzten esaldietako batzuk, gure herriko osasun zentroaren egoerari buruzkoak. Panorama zehatza zein den, ordea, ez dakite, informazioa eskatuta ere arduradunek ez dietelako eman. "Arazoetako bat da gardentasun falta, entzuten dugu jendeak esaten diguna baina apenas dugun datu xeherik: LAB sindikatuaren bidez herrikako ratioen berri izan genuen eta ikusi genuen bete gabe zeudela zenbait postu; arazo hori nahiko estrukturala dela dirudi".

Herriko diagnostiko zehatz bat ez izanda ere, gaur egun agerian dauden premia eta arazoetako

batzuk zerrendatu dituzte: medikuarenera joateko hitzordua eskatu eta lehen zita hamar egunera izatea, egun bakoitzean mediku desberdin batek artatzea pazienteak, erizainek eurenak ez diren zereginak burutu behar izatea, profesionalen ezegonkortasuna eta estres maila, familia medikuei garrantzirik ez ematea, lehen arretako zerbitzuaren gainbehera... Horri lotuta, honakoa planteatu dute: "Hutsik dauden postu guztiak beteko balituzte ere, profesional horiek zenbat denboraz egiten dute lan hori? Jaiotzetik gaur egunera arte ezagutzen gaituzten profesionalak behar ditugu, gure osasunaren jarraipena luzaroan egingo dutenak. Funtsezkoa da".

Berebizikoa iruditzen zaaien beste alorretako bat prebentzioarena da baina arduradunek hori ere ez dute zaintzen. Horren atzean "osasun sistema publikoaren gainbeheraren atzean "estrategia" bat dagoela iritzi diote LOOPAKOek. "Gero eta prebentzio gehiago eta hobea, orduan eta botika gutxiago salduko dituzte, ebakuntza gutxia-

"ESPERO GENUENA BAINO JENDE GEHIAGOK PARTE HARTU DU; HASERREA KALEAN DAGO"

"GARDENTASUNA FALTA DA; LASARTE-ORIAREN EGOERARI BURUZKO DATURIK EZ DIGUTE EMATEN"

go egingo... Arazoaren errora eramaten gaitu horrek: nola ulertzen dugu osasungintza? Herritarren beharrak ase behar ditu ala negozioa egin behar dute horrekin?".

Aldizkari hau inprentara bidaltzerako unean LOOPAK aurkeztutako mozio bat eztabaidatzen ari zen udal korporazioa, udalbatzarrean. Udalari galdegin dio Osakidetzako zuzendaritzarekin biltzeko eta "udalerraren egoera larriari buelta emango dion txoke plan bat aurkeztea eskatzeko".

"Ea norekin tokatzen zaidan gaur"

Anbulatorioan osasun arloko profesionalik ez egoteak eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) egindako kudeaketa eskasak lasarte-riatarrengan eragindako ondorio "oso larriak" laburbildu zituzten hilaren 12ko mobilizazioan:

- **Aurrez aurreko hitzordu bat lortzeko itxaronaldiak "izugarri luzatu" dira**, horrek diagnosi berantiarrek egiteko dakarren arriskuarekin, hortaz, bai herritarren bizi kalitatean bai bizitzan ondorioak ditu.
- **Osasun langileen artean dagoen estres giroa, eta ondorioz, beraien artean baja gehiago gertatzea**; horrek guztiak muturreko tentsio egoeretara eramaten dituelarik. Hortaz, herriko ambulatorioa ez da "lan egiteko leku erakargarria".
- **Aipatu estresak paziente bakoitzari eskaintzeko denbora eskasarekin batera, diagnosi okerrak egiteko "arriskua areagotzen" du**. "Paziente moduan dugun pertzepzioa da gauza hala moduz eta zitzu bizian egiten direla".
- **Falta diren medikuen pazienteak gainerako medikuek artatu behar dituzte, txandaka**. Horrek "ziurgabetasun giroa" piztu du pazienteengan "ederki esplikatzeko duena" itxarongelan behin eta berriz errepikatzen den esamesak: "Ea norekin tokatzen zaidan gaur. Ezinbestekoa da mediku eta pazienteen arteko ezagutza, konfiantzazko harreman batetik abiatuta bakarrik baita posible prebentzio medikuntza egitea".
- **"Muturreraino estutzen ari dira medikuen lana", eta, ondorioz, bajak edo beste arazoak medio, mediku bakoitzak bere pazienteez gain, bertaratzen ez diren lankideenak ere artatu behar ditu**. Behartutako hitzorduek "ez dira arraroak", ohikoak baizik. Baita, mediku faltaren ondorioz, bestelako profesionalak, erizainak kasu, aginduak jasotzea beraiekin ez diren edota beraiek egiteko beharrezko prestakuntza ez duten funtzioak egiteko.

LOKEko judoek, domina ugari Euskadiko lehian

LOKE Judo saileko kadete eta infantil kirolariek Euskadiko txapelketak lehiatu dituzte. Guztira sei domina jantzi dituzte kirol elkarteko kideek: urrezko bi eta brontzeko lau. Ekain Luis eta Aitor Santos kadete mailako Espainiako txapelketarako sailkatu dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) Judo ataleko kideak indartsu itzuli dira oporretatik. Bi hitzordueta parte hartu dute elkarteko kadete zein infantil gazteek Erandion, Bizkaian eta bietan dominak jantzi dituzte.

Hilaren 13an kadete mailako judoek eman zioten hasiera txapelketen asteburuari. Euskadiko txapelketa jokatu zuten Erandikoko Altzaga kiroldegian eta LOKEko kide Ekain Luis, Aitor Santos zein Iker Izquierdok euren onena eman zuten podiumean egoteko.

Luisek eta Santosek urrea jantzi zuten euren kategorietan, 90 kilo baino gehigoko eta 81 kilo baino gutxiagoko mailetan, hurrenez hurren. Izquierdok, aldiz, 66 kilo azpiko lehian hirugarren amaitu zuen lehia.

Lehen biek domina eta Euskadiko txapelketa titulua eskuratzear gain, hilaren 26an eta



Ekain Luis, Iker Izquierdo eta Aitor Santos, kadete mailako dominekin. LOKE JUDO

27an Iruñean lehiatuko duten Espainiako txapelketarako sailkapena lortu dute.

Kirol jokoetan ere bai

Infantilen txanda izan zen hurrengo egunean eta taldeko Iraia Diez, Anne Linazasoro, Ubai Curiel eta Sofia Pozo kideak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan borrokatu zuten.

Lasarte-Oriako judoka gazteek lan ederra egin eta hiruk euren mailatan podiumeko hirugarren mailara igotzea lortu zuten: Diez (57 kilo azpiko kategorian), Linazasoro (63 kilo baino gehiagoko maila) eta Curiel (66 kilo baino gehiagoko kategorian). Pozo, aldiz, podiumetik gertu geratu zen 44 kilo azpiko mailan; zazpigarren izan zen.



Redondo (ezker) eta Murgiondo (eskuin), podiumean. G. REDONDO / J. MURGIENDO

Herriko atleta gazteak ederki jardun dira Eskolarteko lehian

Lasarte-Oriako kirolariek hainbat domina jantzi dituzte Eskolarteko banakako Gipuzkoako txapelketako lehen saioan

Txintxarri

Eskolarteko banakako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten hilaren 14an, Eibarren. Unbeko kirol gunean Gipuzkoako atleta gazteak bildu ziren eta bertan izan ziren Ostadar SKTko kideak zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarra lehian. Lasarte-Oriako ordezkariak ederki jardun ziren; guztira, bost domina eta bi laugarren postu eskuratu zituzten.

Podiumeko koska gorenean izan ziren Hodei Murgiondo eta Ostadar SKTko Eider Redondo infantilak eta gainera, biak bi probetan izan ziren garaile.

Murgiondok jauzi hirukoitzean (11,25 m.) eta pertika jauzian (2,80 m.) jantzi zituen urrezko dominak. Redondok, aldiz, 150 m. lasterketan (19,09) eta xabalina jaurtiketan (32,99 m.).

Alebin mailan, talde urdin-beltezko Amelie Floresek zilarrezko domina eskuratu zuen 2 kiloko pisu jaurtiketa proban, 8,24 m.

Kategoria bereko lehen postuetan izan ziren ere Ostadar SKTko Aitor Ormazabal eta Oier Jauregui. Biek laugarren postuan amaitu zuten euren proba; Ormazabalek 2.000 metroko iraupen luzeko lasterketa (07.33) eta Jaureguik, aldiz, 150 metroko iraupen erdikoa (21,74).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Leintz Arizmendi KE Igandea. 14:35. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
A. Mundarro FKE - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Zarkumendegi, Astigarragan.
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF - Behobia CD Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Arrupe Chaminade CDDF - Ostadar SKT Larunbata. 16:50. Felix Garin, Donostian.
OHOREZKO JUBENILA
Ostadar SKT - A. Mundarro FKE Larunbata. 18:20. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA, IGOERA
Mondragon CF B - Texas Lasartearra CF Igandea. 17:30. Moiategi, Arrasaten.
Hernani CD C - Ostadar SKT B Igandea. 19:30. Zubipe, Hernanin.
OHOREZKO KADETEA
Hondarribia FE - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Ondartza, Hondarribian.

ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Egintza KE - Eguzki Arkupe Rehab. Larunbata. 18:00. Abraham Olano kirol., Anoetan.
III. MAILA, KOPA
Kulturru KE - Eguzki ISU Leñoak Igandea. 12:30. Harripila fr., Legorretan.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bod. Ayesa - Laskorain KE Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
I. MAILA
Vivant Oiarso OSKT - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Don Bosco, Errenterian.
III. MAILA
Ostadar SKT - CD Internacional Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Inar Optika ISB - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Udai kirol., Azpeitian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Saski Axular Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA
Bera Bera Albistur - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Manteo kirol., Donostian.
BOLEIBOLA
EUSKADIKO TXAPELKETA, JUNIOR
CV Sestao - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Getxo, Bizkaian.
SENIOR MAILA
Tolobolei - Ostadar SKT Ostirala. 20:00. Herrikide ikas., Tolosan.
JUBENIL MAILA, 11-14 P.
Aiztondo NKT - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Erriobidea BHI, Villabonan.
KADETE MAILA
Hernani KE 3 - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Udai kirol., Hernanin.
PILOTA
LAU TERDI TX., 2. MAILA
Intza KE (Diaz de Gereñu) - Behar Zana Igandea. 11:00 (2. partida). Kirol guneko pil.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 2. MAILA
Oiarpe 4 - Intza KE 1 Ostirala. 18:00 (1. partida). Oiartzunen.

Intza KE 2 - Hernani 3 Igandea. 11:00 (1. partida). Kirol guneko pil.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 3. MAILA
Gazteleku 1 - Intza KE Ostirala. 18:15 (3. partida). Arrate pil., Andoainan.
IGERIKETA
EUROPAKO TXAPELKETA
Nahia Zudairek igeriketa egokitutako Europako txapelketan izango da lehian. Igandea 21-larunbata 27. Madeira, Portugalen.
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo igerilariek Alebin ligako seigarren jardunaldia dute. Larunbata. 16:00. Usabal kirol., Tolosan.
GIMNASTIKA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren saioa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Karmelo Balda Kirol., Donostian.
ATLETISMOA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
Herriko atleta gazteek Eskolarteko

banakako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute. Igandea. 10:00. Arrasaten.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, 2. MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - La Unica RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
18 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Gaztedi RT Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.
XAKEA
II. MAILA, IGOERA
Taula A - Txaturanga Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
KBI Zumaiaiko C - Taula B Larunbata. 16:00. Zumaian.
ZALDI LASTERKETAK
UDABERRIKO DENBORALDIA
Azken jardunaldia jokatuko dute. Ostirala. 11:20. Hipodromoa, Donostian.



Parte hartzaileek irria ahoan zutela zeharkatu zuten Askatasun parkeko zuzengunea. TXINTXARRI

Gurpil gainean mendiaz gozatu dute BTT zaletuek

Giro ederrean, 350 bat txirrindularik BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria proba lehiatu dute. Buruntza eta Andatza mendietako bideetan barrena inguruaz gozatu eta Askatasunaren parkeko helmuga igaro ostean ederki berreskuratu dituzte indarrak

Txintxarri

Eguraldia lagun, goiz pasa ederra egin zuten BTT zaletuek Lasarte-Orian, hilaren 14an. BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria probak Askatasuna parkearen inguruak txirrindulariz bete zituen goiz osoan zehar.

Lehen orduan ilara egon zen Antonio Mercero gunean dor-

tsala eta maillota jasotzeko eta ordua iritsi ahala taldean, bikoteka edo familian irteera puntura gerturatu ziren 350 bat parte hartzaileak *e-bike* (txirringa elektrikoa) edo bizikleta gainean.

Umore ona nagusi, kirolariak Andatza eta Buruntza mendietatik zeharreko ibilbideak egiteko

prest zeuden. Herritarren animoen artean, irteera eman eta erronkari aurre egiteko erritmo ezberdinak egongo zirela ikusi zen.

Mendietako bide eta aldapak gaindituz, ibilbide motza, ertaina edo luzea burutu zuten parte hartzaileek. Hipodromoko zubitik herrira sartu eta Askatasunaren parkeko helmugako



Kusleen animoen artean, BTT zaletuek gogotsu egin zituzten probako lehen metroak. TXINTXARRI

zuzengunean herritarrek txalo artean jaso zituzten tantaka iristen ziren kirolariak.

Eta helmuga igarota, parte hartzaileek saria jaso, *photo-call*-ean argazkia atera eta indarrak berreskuratzeko aukera izan zuten Patxi Larrañaga ha-

rategiko txistorrarekin, besteak beste.

Antolatzaileak pozarren daude hamahirugarren aldi honek izan duen harrerarengatik eta eskerrak eman dizkiete parte hartzaile, babesle zein laguntzaile guztiei.

LOKEko gimnastak Izarrak torneoko podiumean izan dira

Hilaren 20an eta 21ean, Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren sailkapen saioa lehiatuko dute gimnastak

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak lehiaketa garrantzitsuez betetako hilabeteak dituzte. Mailaren arabera, torneo zein Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioei edo finalei egingo diete aurre hurrengo asteetan.

Hilaren 14an Barakaldora bidaiatu zuten taldeko kide Paula Martinez eta Mirian Prieto. Izarrak torneoa lehiatu ziren biak senior mailan eta xingolarekin lan ederra eginez, lehen postuetan sailkatu ziren; Martinezek zilarrezko



Martinez (eskuin) eta Prieto (ezker), dominekin. LOKE GIMNASTIKA

domina jantzi zuen eta Prieto laugarren izan zen. Biak maiatzaren 5ean Tolosan jokatu den Gipuzkoako txapelketako finala prestatzen ari dira.

Hurrengo hitzorduak

Hilaren 20an eta 21ean eskolarteko txapelketak hartuko ditu Donostiako Karmelo baldako tapizak. Gipuzkoako txapelketako bigarren sailkapen saioari egingo diote aurre LOKEko kideek.

Lehen egunean alebin mailako banakako zein taldeek erakutsiko dituzte euren lanak. Banakakoek sokarekin lan egingo dutela jakitera eman dute taldeko arduradunek. Eta bigarrenegun, aldiz, Lasarte-Oriako elkarteko infantil mailako taldea izango da lehian.

Guztiek maiatzaren 11n, Irunen jokatu duten finalerako sailkapena izango dute jokoan.



OSTADAR SKT

Porrrako sariak badute jabea

Ostadar SKTK Euskal Herriko Itzuliko porrrako sariak banatu zituen hilaren 12an, Patxi Larrañaga harategian. Lehiaketan puntu gehien bildu zituen txartela *18 Bertako Irogailuak* izan da eta bigarren sailkatua *S.O.A.* izan da. Lehen saritua dirua jasotzeaz gain, Larrañaga harategiak oparitutako saskia ere eraman zuen etxera. Parte hartzaileen artean zozketatu diren urdaiazpikoak ere banatu ziren. Eta Ostadar SKTko arduradunek, gainera, Patxi Larrañagako kideei puntu gehien batu dituen establezimenduen saria eman zieten.

Puntu banaketa izan da jubenilen derbian

Jubenil I. mailako igoera jokatzen ari dira Texas Lasartearra CF eta Ostadar SKT B taldeak. Lehen itzuliari amaiera emateko, derbia jokatu dute. Bina berdindu eta puntu bana eraman dute sailkapenean bigarren eta hirugarren mantentzeko, hurrenez hurren

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol taldeek jardunaldi berria izan zuten hilaren 13an eta 14an. Michelin kirol guneko zelaian ikusi ahal izan ziren neurketen artean, nabarmentzekoa da Jubenil I. mailako Ostadar B eta Texas Lasartearra CF taldeen arteko derbia. Igoera faseko lehen itzuliari binako berdinketarekin eman diote amaiera.

Bi taldeak gogotsu atera ziren zelaira eta hasieratik neurketa borrokatua izango zela iragarri zen. Baloia jabetza eskuratzeko lehia handia izan zuten jokalariek eta aurkariaren eremura iristeko hainbat saiakera egin zituzten bi taldeek. Ostadarrek jaso zuen fruitua eta 1-0 markagailuan aurreratu zen Gorka Arzallusen golari esker.

Texas Lasartearrako gazteek ez zuten amore emango, ordea; gogor saiatu eta talde urdin-beltezko defentsa haustea lortu zuten. Markel de los Mozosek binako berdinketa markagailuan jarri zuen.

Berdinketak indarrak eman zizkion talde zuri-urdinari bigarren zatiari begira eta Ander Mosqueroren golak, gainera, Texas Lasartearrari lasaitasun pixka bat eman zion.



Ostadar eta Texas Lasartearra taldeko jokalariek, baloia bila. TXINTXARRI

Baina talde urdin-belzak ez zuten esku hutsik amaitu nahi neurketa eta Jon Barrantesen bitartez, binako berdinketa eskuratu zuen. Azken minutu-arte, garaipena izan zuten bi taldeek buruan. Lehia estua izan arren, markagailua ez zen mugitu eta puntu banaketarekin konformatu behar izan zuten bi taldeek.

Txapelketa ezberdinak

Jubenil I. Mailako taldeak denboraldiko bigarren fasean daude eta lehia ezberdinetan daude murgilduta.

Texas Lasartearra eta Ostadar B taldeak, aipatu moduan, igoera dute jokoan. Bigarren multzoan ari dira lehia eta egun Antigua Luberrri dago buru (15 p.). Atzetik ditu talde lasarteoriatarrak; Texas Lasartearra bigarren (10 p.) dago sailkatua eta Ostadar B hirugarren (8 p.) postuan da.

Bestetik, Ostadar C taldea kopa lehiatzen ari da; Kotkas D izan du aurkari lehiaketako bosgarren jardunaldian eta horrek ere, binako berdinketa eskuratu du. Egun bigarren multzoko sailkapenean laugarren da.

Ostadar Ipar Martxako kideak, Platako ibilbidean barrena

Lasarte-Oriako Ipar Martxa taldeko kideek Platako ibilbideko Asturiaseko gunea ezagutu dute Pazko Astean

Txintxarri

Urtero legez, Ostadar Ipar Martxako kideek Pazko asteen kirola eta kultura uztartzen duen bidaia egin dute; aurten Asturias aldean izan zen taldea hilaren 1etik 6ra. Gijon eta Sevilla batzen

dituen Platako ibilbidean barrena ibili ziren herritarrak eta bertako paisaiak gozatu ahal izan zuten. Zehazki, Uvieu-Olloniego-Mieres, Mieres-Ujo-Carabanzo, Carisa ibilbidea eta Gumial ibilbidea egin zuten.

Ez zen guztia ipar martxa izan, ordea; Oviedo, Gijon eta bertan dauden Veraneseko hiri eta terma erromatarrak, Bustielloko meatzaritza herrixka, Mieresko Gueñun horreoaren interpretazio gunea, Santa Cristina de Lenako eliza, besteak beste, bisitatu zituzten.

Ikasturteko azken txanpari egingo dio aurre orain ipar martxa taldeak eta ostegunetako saioez gain, hilabete honetako zein maiatzeko irteerak egingo dituzte; biak Iparraldera.



Itsaso Iparragirrek (eskuinean) ederki borrokatu zuen garaipena lortzeko. TXINTXARRI

Lehia berrietan zorte ezberdina izan dute Intzako pilotariek

Lau t'erdiko lehiaketari, Emakumezkoen Gipuzkoako txapelketari eta Udaberri Sariari aurre egingo diete

Txintxarri

Aste Santu eta Pazko Asteko oporren ostean, Intza KEko pilotariek txapelketa berriei eman diete hasiera eta emaitza ezberdinak izan dituzte lehen jardunaldian.

Senior mailako Jon Pello Artetxe eta Haritza Diaz de Gereñu banakako Lau t'erdiko lehia murgildu dira; Artetxe lehen mailan lehiatuko da eta Diaz de Gereñu, aldiz, bigarren kategorian.

Artetxek Michelingo kirol guneko pilotalekuan Lapkeko Ibarluzea izan zuen aurkari. Neurketa borrokatua izan zen 13-16a arte, baina lazkaotarrak ederki hartu zion neurria Intzako pilotariari eta 13-22 izan zen azken emaitza.

Diaz de Gereñuk, aldiz, ezin izan zuen ezer egin Eibarko Conderen aurkako neurketan; Eibartarra nagusi izan zen hasieratik eta 22-9 amaitu zen lehia.

Bakarkako lehia ari da Itsaso Iparragirre ere. Infantil mai-

lako Emakumezkoen Gipuzkoako txapelketan Lapkeko Arratibel izan zuen aurrez aurre Michelin kirol guneko pilotalekuan. Ederki borrokatuta, 2-1 (8-7, 3-8 eta 4-3) gailentzea lortu zuen Lasarte-Oriako gazteak.

Binaka lehia

Elkarteko gaztetxoek, aldiz, Udaberri sariari aurre egingo diote. Infantil 2. mailan hiru bikotek parte hartuko dute 2. mailan bi eta 3. mailan bat, baina bakarrak jokatu du jardunaldia hilaren 13an, 2. mailako Intza 1 bikoak. Alde Zaharra 1en aurka neurtu zituzten indarrak Markel Lopezek eta Oier Jauregik eta nagusi izan ziren, 18-1.

Alebin 2. mailan, aldiz, bikote bakarra osatu du herriko elkarrekin (Iker Garcia eta Lier Garmendia). Sariako lehen neurketan Ziotza izan zuten aurkari etxean. Nahiz eta Intzako kideak ederki jardun, zizulkildarrek 10-16 irabazi zuten norgehiagoka.



Ostadar Ipar Martxako kideak, ibilbideetako bateko geldidunetan. OSTADAR IPAR MARTXA

Eguzki Areto Futbol taldeak, azken txanpan

Denboraldiko azken zatian sartu dira Eguzki Areto Futboleko taldeak eta mailaren arabera, lehiaketa ezberdinetan ari dira borrokan. Aste gutxitan fase erregularra amaituko dute batzuek; besteek Gipuzkoako Liga edo Kopa lehiatuko dute

Txintxarri

Eguzki Areto Futbol elkarteko taldeetako batzuk oraindik lehen fasean badaude ere, bada Gipuzkoako Liga edo kopa jokatzeko ari den talderik. Denetarik emaitzak izan zituzten azken jardunaldian.

Arkupe Rehabilitaciones taldeak porrot gogorarekin hasi du denboraldiko azken txanpa. Oartzun I. Mailako bigarren sailkatua izan zuen aurrez aurre eta aurkariak bere nagusitasuna erakutsi zuen lehen minututik. Etxeko taldeak ezin izan zuen era egokian aurre egiten asmatu eta 1-10 amaitu zen neurketa.

Gazte mailako taldea ere lehen fasea amaitzear da. Hilaren 13an, Donostiako Aldapeta ikastetxe-ko C taldearen aurka neurtu zituzten indarrak Eguzki Bodegas Ayesako gazteek eta bina berdindu zuten.

Eta taldeko infantilek bi jardunaldi besterik ez dituzte falta fase erregularrari agur esateko. Azken neurketan, Laskorainen aurka 2-4 galdu zuten gaztetxoek.

Kopa eta Liga jokoa

Eguzki ISU Leioak taldeak kopa lehiaketako bigarren jardunaldia jokatu zuen Irunen, hilaren 12an. Irun Futsal Ganarrari taldeari



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones eta Oartzun taldeen arteko neurketako irudia. TXINTXARRI

egin zion aurre Jon Merinoren taldeak eta ederki borrokatu ostean, 0-1 gailendu zen. Ederki hasi du lehia III. mailako taldeak bi neurketa jokatu eta biak irabazi ditu; lehenean 7-0 irabazi zuen Eibar FTren aurka.

Eguzki Goxokis Goxua kadete taldea, aldiz, Gipuzkoako txapelketako final erdietarako sailkatu da. Azken jardunaldian. Lauburu KE Ibarra Bren 2-1 aurka galdu arren, laugarren postuan amaitu du bigarren fasea. Horri esker, Lauburu KE Ibarra A eta B zein Antiguokorekin batera aurrera egingo du txapelketan. Maiatzaren 18-19ko asteburuan jokatu dira finalerdiak eta Donostiako taldea

izango du aurkari. Finala hil horretako azken asteburuan jokatu dute.

Euskadiko selekzioa

Bestalde, Eguzki taldeko Julen Mauleon, Julen Murillo eta Aimar Garcia kide dituen 12 urtez azpiko Euskadiko selekzioak ez du Erkidegoen arteko Espainiako txapelketako azken fasea jokatu.

Hilaren 17an, Andaluziaren aurka jokatu zuen selekzioak eta andaluziarrak nagusi izan ziren; 10-0. Hurrengo egunean, aldiz, Aragoi izan zuen aurrez aurre Euskadik. Aurkaria 7-2 gailendu zen; selekzioko bigarren gola Julen Mauleon herritarrak egin zuen.

Finalerako bidean, talde bizkaitarrei gailendu beharko zaiei Lasarte-Oriako taldea. Final laurdenean CV Sestao taldea izango da aurkaria eta hori gaindituz gero, Marierrota Lekeitio-Galdakao Boleibol Taldea neurketako garailearen aurka neurtuko ditu indarrak finalerdian.

Infantil A taldeak, aldiz, hilaren 28an egingo du bere mailako Euskadiko talderik onenen aurka. Ane Theus eta Nora Capistegiren taldeak lehen aldian du maila horretako txapelketan.

Boleiboleko junior zein kadeteak, Euskadiko txapelketan lehia

Ostadar Boleibola saileko juniorrek hilaren 20 dute hitzordua, Getxon; infantil A taldeak, aldiz, hilaren 28an

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko junior zein infantil A taldeek hitzordu garrantzitsuari egingo diote aurre hurrengo asteetan Getxon, Bizkaian; Euskadiko txapelketa jokatu dute.

Junior taldea izango da lehen Getxoko Fadura kiroldegiko kantxara ateratzen. Hilaren 20an, talde urdin-beltzak eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko beste zazpi ordezkari Euskadiko lehiaren azken fasea lehiatuko dute.

Xuban Santin World Boccia Challengerrean lehiatu da

Ostadar Inklusioa taldeko kirolaria lehenengo lehiatu da Espainiako selekzioarekin nazioarteko txapelketa batean


Txintxarri

World Boccia Challenger txapelketa lehiatu da martxo eta apirila bitartean, Zagreb, Kroazian. Espainiako selekzioko kideak izan dira bertan lehia eta horietako bat izan da Ostadar Inklusioa taldeko Xuban Santin hermaniarra. Santin bere entrenatzaile Javi Camachok lagunduta debuta egin du selekzioarekin nazioarteko proba horretan.

BC2 mailan lehiatu zen talde urdin-beltzeko gaztea eta A multzoan Robert Mezik eslovakiarra, Josef Zabka txekiarra eta Moroz Andrii ukrainarra izan ziren bere aurkariak.

Ezin izan zuen bigarren fasea aurrera egin. Camacho prestatzaileak azaldu duenez, nazioarteko lehia batean estreinakoz jokatzeko eragina izan zuen gaztearen jardunean: "Urduri zegoen, txapelketaren maila oso altua zen eta bere sentsazioak ez ziren oso onak; ezin izan zuen bere jokorik onena garatu".

Emaitza alde batera utzita, World Boccia Challenger proba nazioarteko lehiak ezagutu eta esperientzia eskuratzeko aukera ederra izan zela nabarmendu



Javi Camacho (ezker) eta Xuban Santin (eskuin), txapelketan. OSTADAR INKLUSIOA

du Ostadar Inklusioa taldeko ordezkariak.

Espainiako txapelketa

Baina ez dira lehiaketak amaitu eta hilaren 20an eta 21ean Zagrebeko arantza kentzeko aukera paregabea izango du Santinek; Gazte mailako Erkidegoen arteko Espainiako Boccia Txapelketa lehiatuko du, Valladoliden. Ez da bakarrik izango, ordea; Markel Uzquiano talde kide andoaindarrak ere parte hartuko du.

Eskola Kirola egitasmoan izena emateko datak gertu dira

Landaberi Ikastolako guraso elkarteak martxan du inskripzioa; Sasoeta-Zumaburuk, aldiz, ekainean egingo du

Txintxarri

2023-2024 ikasturteko Eskola Kirola egitasmoa saioak hila-bete barru amaituko diren arren, Ttakun Kultur Elkarte eta Landaberi zein Sasoeta-Zumaburu ikastetxe guraso elkarteak hurrengo ikasturtea antolatzen hasi dira.

Saioak urriaren 7an hasiko direla iragarri dute. LH1 eta LH2 mailako ikasleek Jolas Hezi programa garatuko dute. Jolasen bitartez, hurrengo zikloko kirolerako trebetasuna eta abilezia lantzen joango dira.

LH4tik eta LH6ra, berriz, kirol ezberdinak landuko dituzte, hala nola, saskibaloia, igeriketa, kirol egokitua, pilota, errugbi, eskubaloia edo judo.

Landaberi ikastolako guraso elkarteak dagoeneko martxan jarri du izena ematea ondorengo loturan: <https://forms.gle/mA5x8GVKWLmnCwmS6>. Inskripzioa egiteko azken eguna hilaren 21a izango da.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko izen ematea, berriz, ekainaren 3tik 16ra egingo da gurasoei zabalduko zaien lotura baten bidez.

ZORION AGURRAK



Laia
Mila zoriooon etxeko Barbie ederrenarentzat!
4 muxu goxo pepona!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 19	LASA
LARUNBATA, 20	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 21	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 22	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 23	GIL
ASTEAZKENA, 24	URBISTONDO
OSTEGUNA, 25	GANDARIAS-URIBE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA:
943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK:
943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINZAK: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 19



Larunbata, 20



Igandea, 21



Astelehena, 22



Asteartea, 23



Asteazkena, 24



Osteguna, 25



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA



ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarra (Tarragona), asteka, uztailen eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak

lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukalde, bainuge-la eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975 euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

Hipodromo etorbidean garaje itxia alokatzen da, berria. Prezioa nego-

ziagarri. Harremanetarako zenbakia: 616 81 68 14.

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko ekaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia du. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

(Izu atiaz argitaratuko dira).
Profesionaltzat, aldiz,
4 asterako kontratazioak
12 € + bez. izango
da prezioa.

Irteerak jarri nahi
baduzu jar zaituz
gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatazaileak:
Nikola Iraola, Xuban
Urdaleta, Egoitz Epelde,
Nora Navarro, Sergio
Hernandez, Ander Hazas eta
Iñigo Garcia.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

LARUNBATA 20



LASARTE-ORIA Antzerkia

Ttanttaka Teatroaren eskutik, Fernando Bernues zuzendariaren *Esnearen kolorekoa* antzerkiak gozatu ahaliko dute ikus-entzuleek. Aitziber Garmendia, Jose Ramon Soroiz eta beste hainbat aktore ikusiko ditu publikoak oholtzan. Sarrerek 14 euro balio dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**



LASARTE-ORIA Dokumental zikloa

Okendo Zinema Taldeak egitarau interesgarria ondu du lau euskal ekoizpenekin. Horietatik lehen biak, *Tetuan* eta *A los libros y a las mujeres canto* ikusi dituzte dagoeneko herritarrek, baina datozen egunetan ere izango dute gainerako biez gozatzeko aukera. *Cabeza y corazón* proiektatuko dute hilaren 26an, eta *Mirande*, berriz, hurrengo egunean emango dute pantaila handian, hilaren 27an. 20:00etan izango dira horiek ere, eta antolatzaileek iragarri dute proiektzio bakoitzaren ostean ikus-entzunezkoen zuzendariekin solasaldiak egingo dituztela. **Kultur etxea, 20:00etan.**

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Izen ematea

Lasartearra elkarteak jakinarazi du hilaren 21a izango dela aurtengo mus txapelketan inskribatzeko azken eguna. Parte hartu nahi duten bikoteek 20na euro ordaindu behar dituzte elkartearen egoitzan (Erribera kalea 10. zenbakia). **Lasartearra elkarte.**



LASARTE-ORIA Emanaldia

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak antolatuta, Italiako San Salvatore koruak emanaldia eskainiko du Brigitarren komentuan, hilaren 27an. Alboka Abesbatzak tokiko kultura sustatzen du, tokiko eta nazioarteko beste kultur talde batzuekin emanaldiak eginez, eta, ildo horretan, 2019ko uztailearen 31tik abuztuaren 7ra bitartean, Susegan (Italia) parte hartu zuten. San Salvatore abesbatzaren gonbidatu gisa, hainbat kontzertu eskainiz. Orain, berriz, Italiako abesbatzak orduko bisita hura itzuliko dio Albokari. Hilaren 25etik 28ra izango dira gure artean. Udalak harrera egingo die, hilaren 25ean, 18:00etan, udalbatzar aretoan. **Udalbatzar aretoa eta Brigitarren komentua.**

ASTEARTEA 23

LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobilean Elkarteak apirilko saioa aurrera eramango du: *Lasarte-Oriak gaztetxea behar du?* Horretarako, honako eragileetako kideak gonbidatu dituzte: Birunda gune autogestionatua (Donostia), Usurbilgo Elkargunea eta Añorgako

nahiz Orioko gaztetxeak. Lasarte-Oriako Ernaik ere parte hartuko du. **Oriarte Landaberi institutua, 19:00etan.**

OSTEGUNA 25

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriarrak bere azken lana aurkeztuko du, *Dei galdu bat*. Goiatz Labandibarrek dinamizatuko du saioa. **Kultur etxea, 18:30ean**

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Palestina, zer ari da gertatzen? solasaldia antolatu du Lasarte-Oria Palestinarekin herri ekimenak. Xirimiri elkartearen aurrera eramango dute, eta Remm Damdan eta Asier Herranz izango dira idazleak. **Xirimiri, 19:00etan.**

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan, Ainhoa Andracka Zuri Goikoetxearen *Cabeza y corazón* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**

ZINEMA



LABURPENA

'La familia Beneton'

Zuzendaria: Joaquin Mazon. **Ekoizleak:** Atresmedia Cine, Bowfinger International Pictures, Esto También Pasará, AF Films, Atresmedia Televisión, BTF Media, Glow, MBK Productions, See-Saw Films, Cross City Films, Filmation Entertainment. **Gidoia:** Benjamín Herranz, Curro Velázquez. **Herrialdea:** Espainia (2024). **Iraupena:** 93 minutu. **Generoa:** Komedia. **Aktoreak:** Leo Harlem, Juan Manuel Montilla, Damian Alcazar, Ali Dia, Gala Bichir, Diego Montejo, Mellin Zahn, etab.

Haurregandik ihesi dabil

Toni, gizon karramarroa, ezkongabea eta seme-alabarik gabea, umeegandik ihesi dabil kosta ahala kosta. Haren bizitza goitik behera aldatu da ahizpa hiltzen denean, eta, gauek goizera, bost seme-alaba adoptatuen aldi baterako tutore bihurtuko da: herrialde batekoa bakoitza, jatorri

desberdinetakoak. Mundu modernoko kultura desberdintasunei eta aitatasun erronkei aurre egin beharko die Tonik, eta konturatuko da benetako familia dela norberak aukeratu duena. Joaquin Mazon zuzendariaren drama generoko filmaz gozatu dute bertaraten direnek.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Emanaldia

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak antolatuta, Italiako San Salvatore koruak emanaldia eskainiko du. Brigitarren komentuan izango da, eta sarrera, doakoa. **Brigitarren komentua, 19:30ean.**

LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren laugarren proiektzioa izango da; Josu Martinezen *Mirande* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Kung fu panda 4 haurtzako filma proiektatuko dute pantaila handian, eta Po panda hartzaren istorio berri izango dute gaztetxoek. Sarrerek 4 euro balio dute. **Kultur etxea, 17:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

La familia Beneton helduentzako filma proiektatuko dute. Haurregandik ihesi dabilen gizon karramarroaren istorioaren lekuko izango dira ikus-entzuleak. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 19:30ean.**

BAZKIDETZA TTAKUN

KULTUR ELKARTEA



ZOZKETA BEREZIAK!

Hilabetero zozketetan parte hartuko duzu!
kultur ekitaldietarako sarrerak, bazkari edo afariak,
produktuak, herriko komertzioetan erabiltzeko bonoak, etab.

Eta oraindik ez bazara bazkide: Apirila, maiatza eta ekaina bitartean egiten
bazara ERRIGORA otar baten zozketan sartuko zara!!

bazkide egiteko:



Euskara eta kultura bidelagun !

Zer babestuko duzu?

• Haur eta gazteen euskarazko aisialdia

Amaraun kluba
Gazte kluba
Kuadrillategi
Faktoria
Udako Txokoak
Udako kanpaldiak

• Helduen euskarazko aisialdia

Plaza Dantza eta Muxikoak
Solaskide programa
Titare jostintza taldea
Helduentzako tailerrak

• Kultur ekintzak

Euskal Inauteriak
Udaberriko bertso saioa
Azkorteke erromeria
Sorgin Dantza
Santa Ana parodia
Euskal Jaia
Euskararen Maratoia
Euskaraldia
San Tomas azoka
Olentzerori ongietorria

• Txintxarri aldizkaria • Ikastaroak

- Lehenetsuna zenbait izen ematetan
- Deskontuak
- Zozketetan parte hartuko duzu
- "Ttakunberri" buletin digitala jasoko duzu

Zein abantaila izango dituzu?

